

# AIURRI

1995eko maiatzaren 26a. 15. zenbakia. Doan banatzen da.



## VII. Haurren Euskal Jaialdia




Biek estreinatu dute etxe berria... baina, batek bakarrik eskatu zuen hipoteka Euskadiko Kutxan.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



Hipoteka Berria



LEHEN 1.000 HIPOTEKEK DIRUA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO JASOKO DUTE



## PARA QUE ANDOAIN RECUPERE EL RUMBO

Elkarlanean, gure herriari norabide egoki bat eman nahian, EAJak:

Talde gazte eta esperientziduna aurkezten du. Gure eguneroko lana irekitasunez egitea proposatzen duen taldea. Honen adibiderik garbiena, EAJak aurkezten duen zerrenda duzuelarik. Bertan, eritzi ezberdinetako gizon-emakumeak aurkezten baigara. Baina, guztiok dugu lotzen edo elkartzen gaituen ardatz nagusi bat: guztiok Andoaindar abertzaleak gara, eta guztiok herri honen hobetzea eta aurreratzea modu eta bide demokratikoak erabiliz egin daitekeela uste dugu.

Ezberdintasunen gainetik, Andoain aurrera ateratzeko gogoia nagusi duen talde honek, errespeto osoz eta pluraltasunean egindako herrigintzaren alde apostatzen du. Hau da, minori edo gutxituen kultur eskubideak errespetatuko dituen herrigintza eta herri bizitza eta elkarren arteko harremanak bul-tzatu eta sendotuko dituena.

Horretarako, beharrezko deritzogu, kultur ekipamenduen plana zehaztea, gestiona-tzea eta bereiziki Basteroko kultur zentroa martxan jartzea. Hau, guztion, gazte zein helduen elkargune eta topagune egokia izan dadin.

Elkargune eta topagune hauetan, eguneroko bizitzan bezala, euskarak, ezin besteko tresna izan behar du. Beraz, ezin bestekoa deritzogu euskararen normalkuntzarako udal ordenantzak, berriz aintzat hartzea, euskararen egoera udalaren barruan eta, oro har, herrian, hobetzeko urratsak eman daitezen.

Gizarte zerbitzuetako laguntza haez gain, Andoaindar orok bere eguneroko bizitzaren euskarrirako ere behar ditu beste azpiegitura batzu. Hala nola: etxe bizitza eta inguru giro egokiak, eta nola ez industrialdeak. Talde hau, hiru zutabe hoiak lortzeko, beharrezko diren kudeaketa lan guztiak egitera behartuta aurkitzen da.

*El PNV y este equipo entienden la vida y la gestión de nuestro municipio como un servicio a los ciudadanos. Intentando y buscando siempre el acercamiento entre el Ayuntamiento y los ciudadanos-as de Andoain. Por lo tanto, intentará dejar al margen la forma de gobernar, que muchas veces ha imperado en el Ayuntamiento y apostará por el diálogo y la colaboración con los andoaindarras y entre las distintas fuerzas políticas.*

*Con este equipo y con esta nueva forma de gobernar, pretende dar un rumbo a nuestro municipio. Definiendo entre todos, lo que queremos que sea Andoain hoy y en el futuro.*

*Pero una vida normalizada y con un*

*desarrollo integral en la comunidad de las personas, familias y grupos, debe garantizar una serie de prestaciones básicas a todas las personas. Entendemos que, la acción social municipal no debe limitarse a la atención de problemas marginales o carencias específicas, sino que debe promocionar y desarrollar servicios dirigidos al conjunto de los ciudadanos. Convertir la solidaridad humana en elemento de articulación e integración, es un fundamento que adquiere mayor importancia en épocas de crisis como la actual.*

*Si tú también estás dispuesto a participar, a dialogar y a colaborar con este equipo por Andoain, da tu voto al PNV.*

## “Elkarlanean Andoain berri bat egiten”

Garbiñe Egibar



**Eman Botoa**  **EAJ PNV**  
Esperientzia eta Etorkizuna

# Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**  
**ZE BERRI?**  
Gabi Ormazabal billabonarra.
2. **INKESTA.**  
Eta zuk, jarraitzen al diezu eguneroko albistei?
3. **ADUNA.**  
Udaletxearen inagurazioa.
- 4-5. **ANDOAIN.**  
Ama Kandidaren beatifikazioa.  
EA eta IU-EBren hautagaiak.
6. **ASTEASU.**  
EA eta EAJ-PNV elkarlanean.
7. **BILLABONA-AMASA.**  
Suharri taldea: gazteak mugituz.
8. **ZIZURKIL.**  
EA eta EAJ-PNVren hautagaiak.
- 9-10. **ERREPORTAIA.**  
VII. Haurren Euskal Jaialdia Andoainen.
11. **BASERRIA.**  
Haragitarako eta esnetarako ganadua.
- 12-13. **KIROLA.**  
Andoain: Moto txikien txapelketa.  
Billabona: Errebote eta joko-garbi saioak.
14. **LEHIAKETA.**
15. **HEMEROTEKA.**
16. **AGENDA.**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31  
**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.  
**Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika.  
**Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola.  
**Inprimategia:** Gertu Kopp. E. (Zubillaga, Oñati).  
**Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

# Ze berri?

## Gabi Ormazabal

### ZERBITZARIEN LASTERKETETAN TXAPELDUN



BILLABONARRA: 28 URTE;  
UDALTZAINA OFIZIOZ; TABERNARIA AFIZIOZ.

- **Zer da zerbitzarien txapelketa?**  
- Aspaldi egiten ziren borrelako probak Donostian, orain dela 30 urte utzi zioten egiteari. Kontxa pasealekuan egiten dira zerbitzarien artean Ibautei igandean.

- **Eta zertan datza?**

- 300 metro egin behar dira korrika, ezkerreko eskua bizkarrean lotuta, eta eskuinekoaz azpila eramanez. Azpila Keler garagardo botila bat eta kopa bat beteta eraman obi dira. Edaria isuriz gero, ez da ezer gertatzen, baina botila edo kopa eroriz gero, txapelketatik kanporatu egiten dute partehartzailea. Korrikalariek ez dira ez oinez ibiltzen ezta korrika egiten ere, baina zenbat eta azkarago, hobeto.

- **Zenbat aldiz irabazi duzu txapelketa?**

- 1988. urtean irabazi nuen aurreneko txapelketa. Geroztik beste bi aldiz izan nabiz garaile, eta beste biru aldiz -iaz adibidez- bigarren izan naiz.

- **Asko kostatu al zaizu azpilak eramaten ikastea?**

- Praktika bandia daukat. Gipuzkoako herri askotan ibili naiz tabernari, era guztietako tabernetan. Donostian bamaika hilabetez egon nintzen Guria tabernan zerbitzitzen, eta San Ferminetan urtero egiten dut lan Gaztehi enparantzako tabernaren batean. Bi horietan ikasi dut batez ere, azpila eramaten. Asko gustatzen zait tabernari lana. Nire helburua egunen batean taberna bat izatea da. Garai batean oso lotsatia nintzen, gaur egun tabernako lanari esker, jendearekin barremantem, askoz ere irekiagoa naiz.

- **Entrenatzen al zera txapelketetarako?**

- Orain dela biru urte arte korrikalaria izan naiz, eta ez neukan entrenatzeko beharrik. Baina korrika egiteari utzi nionetik Arratzaineko zelaira joaten naiz aste batzuk lehenago entrenatzera. Aurrean adibidez gogor entrenatu dut, baina euria egin zuen eta bertan behera utzi zuten lehiaketa.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



M. LARRAMENDI



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jasotzen du.

## Eta zuk, jarraitzen al diezu eguneroko albisteei?

Jendeak ba al dauka mundu zabalean edota bere inguruan gertatzen ari denaz inolako jakiminik? Jarraitzen al die eguneroko berri eta albisteei? Behartuta sentitzen al dira, ala gogoko al dute informatuta egotea? Zein medio erabiltzen dute



**Encarni Ibañez,**  
etxeakoandrea.  
Asteasu.

Prensa, irratia eta telebistaren bidez jasotzen ditut berriak. Garrantzitsua iruditzen zait gai guztiei buruz informatuta egotea, nahiz eta askotan nahi dutena soilik kontatzuten duten.



**Ana Sanchez,**  
irakaslea.  
Zizurkil.


Prensa eta telebistaz jarraitzen ditut berriak. Gehienbat bertako berriei egiten diet kasu. Interes gehiago dutela iruditzen zait, beti ere gure inguru eragiten baitute.

horretarako? Horra, oraingo honetan herritarrei luzatu dizkiegun galderak. Inoiz baino gehigo Informazioa botere bilakatu den milurteko honen bukaeran ohartuko zareta inor gutxi dagoela komunikabideei kasu egiten ez dienik.



**Javier Nieto,**  
ikaslea eta  
entrenatzailea.  
Billabona.

Kirol mundua da batez ere interesatzen zaidana. Prensa eta irratia bitartez jasotzen dut kirol informazioa. Beste alorretako informazioa nahiko urrun geratzen zait.



**Eduardo Mendieta,**  
ikaslea.  
Andoain.

Bai, munduan zer gertatzen ari den jakitea gustatzen zait. Euskal Telebista ikusten dut normalean; asteburuetan berriz, egunkaria irakurtzen dut. Azken egun hauetan gehien entzuten ari naizen albistea Jose Mari Al-daiaren bahiketa da.

# Erantzukizuna



BILLABONA



ASTEASU



ANDOAIN



ZIZURKIL



**EMAN BOTOA**



## Udaletxearen inaugurazioa

Kulturarako areto bat ere prestatu dute

Adunako udaletxea denbora luze egon da paper guztiak nahasturik, artxiboak gora eta behera, eta langileak alde batetik bestera txukuntze lanetan. Denbora luzean zeharo nahasturik egon bada ere, hartu duen itxurak ez du hilabete hauetan izandakoarekin zerikusirik. Fin gelditu dela ez dago esan beharrik. Oraindik ikusi ez baduzue, inauguraziorako gonbitea hor duzue.



*Gutziz eraberritu dute etxea*

Udaletxearen inaugurazioa ekainaren 4ean izango da. Denbora asko behar izan da lan guztiak bukatzeko. Askok kostata, bai, baina baita merezi ere. Udaletxea duela hogeita hamazazpi urte berregin zutenetik ez du aldaketarik izan eta bertako argindarra, telefono kableak, berogailua eta beste hainbat gauza ez zeuden ongi prestatuta.

### Berrikuntzak

Udaletxearen aurrealdea eta barrualdea berritu dute. Egungo beharretara egokiturik gelditu dira bertako gelak: idazkaritza, Udal batzarretako

gela, eta Alkatearentzako, gizarte laguntzailearentzako, teknikariarentzako eta artxiborako bulegoak. Era berean, behean dagoen gelan kulturari egin diote lekua, bideo emanaldi, mahai-inguru e.a. egiteko erabiliko delarik.

Oraindik goiko solairua Kultur Etxe bezala prestatzeko eta taberna beste leku batean jartzeko daude, baina eginbehar horiekin ez dira datorren urtera arte hasiko.

Lanetarako behar izan den diruaren zati handiena Udalak jarri du baina

Diputazioko Hirigintza eta Kultura sailen eskutik dirulaguntza ere jaso dute. Egundorretarako beraz, Udalak Diputatu Nagusia eta Kultura eta Hirigintza diputatuak gonbidatu ditu. Horiez gain, inguruko herrietako alkateak bertan egongo dira. Gerturatu nahi duen herritarrek ere atek irekita izango ditu. Egundorretan etortzen den orori ongi-etorria eman ondoren, instalakuntzak ikusteko aukera egongo da. Herriko haurrek agurra dantzatu ondoren *lunch* bat egongo da.

HONDA

YAMAHA

KAWASAKI

SUZUKI

## AZKAIN

## MOTOAK

MOTUL

FERODO

NZI

CASTROL

DAINESSE

AGV

• MOTORRETARAKO AKZESORIOAK • NEUMATIKOAK

• MOTORE AZTERKETAK

Eskeintza berezia eta mugatua.

Edozein motor erosita:

**EURODISNEY-era bi pertsonentzako bidaia eta sarrerak.**

Miarritzetik hegazkinez.

UBILOS AUZOA - 56.POLIGONOA - 12 zenb ☎59 14 13 ANDOAIN

## OGIZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32

☎ 69 18 96 ASTEASU

## OGI-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,

BAINO GOXO

GOXUA!!

Kale Nagusia, 26

☎ 69 32 94 BILLABONA



# Herriz herri

## Andoain

# EAren hautagaiak

J.M. Ormazabal alkategaia: "PNV-EuEk nahitaez ezarri nahi izan dituzte euren ideiak"

Eako kideak ez dira bat etorri EAJ-PNVk eta EuEK "abertzale demokratikoen" hirukoa osatzean eman diren urratsekin, eta bi alderdiek prozesuaz eginiko balorazioarekin. EAJ-PNVri aurpegiatu dio Eak azken legealdian PSE-EEren laguntzaile izatea. Hurrengo legealdirako lehentasunen artean hirigintza, ingurugiroa, eta berreskurapen ekonomikoa aipatu dituzte.

EAren ustez PNV-EuEk azkarregi iragarri dute EArekiko ezadostasuna: "Gu azkenengo momentura arte saiatu gara elkarriketarako berbidetuz", adierazi du J.M. Ormazabal zerrendaburuak, "baina, beren borondatea inposatu nahi izan dute". Bestalde, EAJ-PNVk PSE-EEri eman dion laguntza tamalgarritzat jo dute, "laguntza bezain tamalgarria izan zen urtebete elkarlanaren ondoren, akordioa etetea eta Udala egoera penagarrian uztea. Are okerrago -gaineratu dute Eakoek- oraindik ere PSEri lotuta daudela onartzen dute". Hortaz, EAren iritziz EAJ-PNVren elkarztearen borondatea ez zen egiazkoa, "hauteskude kanpainarako aitzakia baino ez da izan", diote.

### "Erantzukizuna" lemapean programa

Hirigintzari eta ingurugiroari lehentasuna eman nahi die EAK. Euskaraz nahiz gaztelaniaz lan egingo duen Udalaren alde agertu dira, "eta andoaindar izatearen harrotasun positiboa berpiztu nahi dugu", gehitu dute. Azkenik, hurrengo legealdiaren erronka nagusia egoera ekonomikoaren zuzpertzeta dela diote, "horrek ekar dezake elkartasuna, auzolana, gizarte ongizitatea, osasuna, kultura eta abar".

### Hautagaiak

Joxe Mari Ormazabal, Gabino Agudo, Elena Arribillaga, Mariabel Ormazabal, Xabier Huizi, Jose Luis Urdanpilleta, Valentin Guerrero, Joxe Forcada, Koro Asurmendi, Placido Ormazabal, Serafin Perez, Luis Otaño, Jesus Guerrero, Lupe Barrondo, Valentin Espejo, Mitxel Ziordia, Gotzon Huizi, Joxe Garmendia, Bittor Barandiaran, Luis Mari Forcato.



## Udalak onartu du ATAk proposatutako hitzarmena

Donostiako fiskalak Andoaingo Udala salatu du beste 30 Udalekin batera

Bi zehaztapen biltzen ditu Andoaingo Talde Antimilitaristak proposatu eta Udalak, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien abstentzioekin, onartutako hitzarmenak: batetik, urtero zozketatzen dituzten gazteei gutun informatibo bat bidaltzea soldadutzaren aurrean dauden aukera guztien berri emanez; bestetik, andoaindar guztiak kontzientzia eragazpeneri eta intsumisioari buruz informatzeko sentsibilizazio kanpainak egitea.

Horrezaz gain kode penalak intsumisioei ezartzen dien zigorren salaketa adierazten duen mozioa onartu du Udalak. Orain arte Udalak gaiarekiko izan duen jarrera positibotzat jotzen du ATAk. Dena den, aurrerantzean konpromezu handiagoa hartu behar duelakoan dago. Horren adibide argia da Udalak Gurutze Gorrian ordezkoko zerbitzua egiten duten gazteekiko duen jarrera: ATako kide den Iñaki Otañendiren ustez, Udalak gai hori ere kontuan hartu beharra dauka, eta erabakiren bat hartu koherentziaz jokatzeko.

### Udalen aurkako salaketa

Andoaingo Udalarekin batera Asteasu, Billabona eta Zizurkilgoa salatu ditu Beterrin, Gipuzkoako beste 26 Udale-

kin batera Donostiako fiskalak. ATAk herriko alderdi politiko guztiarekin biltzekoak direla adierazi digu: "Iritsi da ordua elkarlana egiteko, eta herriak Udalarekiko elkartasuna adierazteko, izan ere, Udalarekin batera herria bera izan da salatu dutena", esan digu Iñakik.

Gaur egun 80 intsumisio daude herrian. Horietako 23 epaitu dituzte 1994-95 urteetan.





## Ama Kandidaren beatifikazioa

Berrozpe Etxea: "Hara, ni jaio nintzen etxe zaharra!"



**Ama Kandidaren beatifikazioa maiatzaren 6an izatea espero zuten Berrozpe Etxean. Azkenean, ospakizuna 1996ko udaberrian izango dela uste dute. Hala ere, apiril eta maiatzean zehar izan eta izango dituzte hainbat bisita eta ospakizun Andoaingo Jesusen Alabek; apirilean 500 brasildarrek bisitatu zuten Ama Kandida zenaren jaiotetxea Kaletxikin, eta hilaren 31an bere jaiotzaren urtebetetzea dela eta, ospakizun apal bat eskainiko dute. Bien bitartean Aita Santuak dagoeneko onartu du andoaindarraren mirariak onesten dituen dekretua.**

minbiziak jota zegoen emakumezko bat bere bitartekaritaz sendatu omen zen. Adierazpen horiek guztiak erakutsi eta frogatu egin behar dira kanonikazazioa onartzeko ordea, eta Ama Kandidaren kasuan bere santutasunaren lekuko izan diren pertsona askok eman dute bere bizitzaren xehetasunen berri.

### Ama Kandidaren bizitza

Andoain, 1845-V-31- Salamanka, 1912-VIII-9. Kaletxikin jaio eta Tolosara joan zen zazpi urte zituela. Zazpi ahizpetan zaharrena izan zen, eta umetan ez zuen ez irakurtzen ez idazten ikasi. Valladolidera eta ondoren Salamankara joan zen, eta han ikusi omen zuen argi eta garbi irakaskuntzarako elkarte bat sortu behar zuela: "Ezjakina izanik, horrelako inspirazioa edukitzea da guretzat santutasunaren seinalerik nabarmenena", esan digu ama superiorak. Emakume ausartu izan

omen zen: diru arazo ugari izanda ere, lortu zuen Elizaren babesean kongregazioa zabaltzea. Brasilen 1910ean sortu zen lehenengo etxea. Aita Arranzek ere eginkizun horretan asko lagundu zion.

### Berrozpe Etxea

1871an sortu zen Jesusen Alaben kongregazioa. 1922an, Ama Kandida hil eta handik 10 urtera finkatu ziren Berrozpe Etxean alabak. Jose Mari Olazabal andoaindar aberatsak eskuratu zuen enkantean etxea eta serorei oparitu zion. 1945an berritu zuten auzoko elkarte eta bizilagunen laguntzaz. "Hara, ni jaio nintzen etxe zaharra!", esan omen zion behin Ama Kandidak trenean zihola lagun bati. Esaldi horren izenpean daude Berrozpe Etxean berebiziko maitasunez gordeta santua jaio zeneko gela, lan egin zuen mahaia eta garai batean inguratu zuten hainbat eta hainbat oroi garri.

**B**izitzan zehar fedean sutsu lan egiteaz gain, santuek heriotzaren orduan "arrasto berezi bat" uzten dutela adierazi digu Maria Angeles Iturriotzek Berrozpe Etxeko ama superiorak. Eta hil ondoren ere hainbat eta hainbat mesede eskaintzen omen dituzte sinetsi eta beraiegana jotzen dutenei. Ama Kandidaren bizitza eta heriotza miragarriak izan ziren ezagutu zutenek eta jarraitu diotenek esaten dutenez.

Bizitzan zehar, zalantzarik gabe, Salamankan neskatilentzat eskola bat sortu izana eta lan hari jarraitu izana dira bere santutasunaren seinalerik aipagarrienak. Hil ondoren, orain dela 25 urte

## IU-EB: Nicolas Barbón alkategai Bi edo hiru zinegotzi lortzeko asmoa

Nicolas Barbón andoaindarra da Izquierda Unida-Ezker Batua alderdiaren alkategaia. Prentsaurrean adierazi dutenez eta azkenengo hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera bi edo hiru zinegotzi lor ditzaketela uste dute. Nicolas Barbón Etxeberrieta auzo elkarteko partaidea da, eta berarekin batera gainerako zereendakide guztiak ere - PSE-EE alderdiak plazaratutakoaren aurka- andoaindarrak dira.

Beren helburua Eusko Jaurilaritzan nagusi den PNV-PSE-EA hirukoa ekiditea da. Hamahiru puntutan oinarritzen da IU-EBren programa: Udala herritarrengana hurbiltzeko asmoa adierazi dute, batez ere. Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzari ere garrantzi handia eman diote, hala nola lanpostuak sortzeko programa zehatzei.



# MILIKOST

**LIBURDENDA  
PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57  
ANDOAIN

# Jose Ramon

## Taberna

**PINTXO EDERRAK !!**

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN



## EA eta EAJ-PNV elkarlanean

### EAKo Iñaki Amenabar da alkategaia eta EAJko Xanti Gurrutxaga bigarrena

“Asteasu elkarlanean” lemapean osatu dute datozen Udal hauteskundeetarako EAJkoek babesten duten EAREN zerrenda. Bi alderdiek batera egin dute programa eta zerrenda osatzeko sexu, adin eta lanbide ezberdinetako jendea bildu dute. Diotenez, batera lan egingo dute Asteasuren etorkizunaren alde, “herritarren eskura egongo den Udala sortuz eta gestio garbi bat aurrera eramanez”.



Bi alderdiek eginiko programaren arabera, etxebizitza gabeziak eragindako arazoa konpondu nahi dute: “Gazteak herritik joatea behartzen ditu eta beraz, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea bultzatuko dugu”. Bestetik, gasaren banaketa eta horniketarako instalakuntzak sortutako arazoak ere konpondu nahi dituzte: “HBk zuzentzuen duen Udal batzordeak ez du instalakuntza lanen kontrolik eraman eta guk, instalakuntza horiek egokitzea eta gas biltzeak lekuz aldatzea proposatzen dugu” diote zerrendakideek. Kultura alorrean berriz, herritarren ekimenak bultzatu eta ekintza sozio-kulturalak lantzeko guneak eskaini nahi dituzte. Azkenik, langabezia daudenei laguntzea agintzen

dute; informazioa, formazio ikastaroak, auto-enplegua e.a. bultzatuko dituztela gaineratuz.

Zerrendaburua EAKo Iñaki Amenabar da eta Xanti Gurrutxaga jeltzaleak jarraitzen dio. Begoña Albeniz independenteak, Jeronimo Otegik, Mikel Arteagak, Agustin Aizpuruak, Joseba Otegi independenteak, Mertxe Irazustak, Lorenzo Usandizagak, Jesus M. Beldarrainek, Esteban Irazuk eta Maria Uzkudunek osatzen dute zerrenda.

## Zahar eta gaisoen eguna

### Gaisoen pastoralak eta herriko erretoreak antolatuta

Maiatzaren 7an Santa Krutz jaiak ospatzeaz gain, gaiso eta zaharren eguna ere ospatu zuten. Goizeko hamaiketako meza nagusian, dantza eta bertsoez lagundurik, untzio-sakramentua eman zitzaizen gaiso eta zaharrei. Kristo Santuari ere eskaini zioten dantzatxo bat elizkizun berezi horretan. Ondoren, Martxetaundiko sagardotegian bazkaldu zuten lagunarte jatorrean, trikitilari eta bertsolariekin batera. Elbarriak etxetik ateratzeko egun aproposa izan zen, jai giroan ibiltzeko alegia. Aipatzekoa da Tolosako gaisoen batzordekoak ere etorri zirela ospakizunera.



Lagunarteko giroan ospatu zuten eguna



# BORDA Jatetxea

A N D O A I N

# OTSABE

Etxebizitzen salerosketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA





# Suharri taldea: gazteak mugituz

“Gazteontzat ekintzen beharra du Billabonak”

Gazteok bizi dugun egoera larria da, dudarik gabe. Langabezia gehienok ezagutzen dugun errealitatea da. Drogatik ihes egitea erlan neketsua da eta gazte asko erortzen da bere hatzaparretan. Denbora asko eta eginbehar gutxi. Hori da jende askoren ustea. Egoerak ez du asko laguntzen baina Billabonako gazteok badugula zereginik esan digute



Billabonako gazteak jo ta fuego dabiltza

“Duela lau hilabete jsortu zen taldea Billabonako gazteontzat zeuden egiteko eskasak ikusita. Herria hilik dago eta horri itenbidea jarri behar geniola pentsatu genuen. Billabonako gazteok Gaztetxea dugu baina guretzat Gaztetxea geldirik dago eta jendeak ez du ezer egiteko gogorik. Gu ez gaude Gaztetxearen aurka baina bere funtzionatzeko era egokiena ez dela iruditzen zaigu. Badirudi, hala ere, azken aldira zertxobait gehiago mugitzen ari direla” azaldu digute Igor eta Nekane.

## Ekintzak

Hogei gazte inguru biltzen dituen talde honek ekintza ezberdinak antolatzen dituzte parte hartu nahi duten gazte guztientzat. Duela denbora gutxi Uzturrera martxa antolatu zuten eta buruan duten hurrengo ekintza hogeita lau orduko futbito txapelketa da Amasako

frontoian. Laster aldizkari bat kaleratuko dute. Bertan gazteon arazoak agertuko dira: droga, sexismoa, langabezia eta musika, besteak beste.

Oztopo handienetakoa dirua da oraingoz ez baitute dirulaguntzarik jaso. Hala ere, jadanik ezagunak dira herrian eta aurrerantzean diruren bat jasotzea espero dute.

## Gazte guztientzat dago lekua

Helburua oso argi dute: gazteak mugitzea. Inork taldean parte hartzeko gogorik izango balu ateari irikita daudela esan digute. Ideologia ezberdinak alde batera utzita gaztea izatea da betebeharrak.

Kultur Etxean biltzen dira asteartero arratsaldeko zazpietan.

“Gazte askok pentsatzen du gizarite honetan berarentzat ez dagoela lekurik, baina horrela balitz guk geuk bilatu behar dugu lekua. Era berean gure esku dagoen guztia egiteko prest gaude, herri honek dinamika har dezan eta herri hau langabetuez eta drogazaleez beteriko lekua baino zerbait gehiago izan dadin. Egoera ez da oso ona baina etorkizuna ez dela hain beltza iruditzen zaigu” adierazi digute baikor.. Hala izan bedi.

# Billabona-Amasa

**fotocolor**  
ERREBELATUA ORDU LAN

**Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.  
Lan Industrialak**


**Kodak**  
**EXPRESS**  
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

Jose Ignacio Unanue  
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32  
20.140 ANDOAIN



TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN



**ZUBI**  
**AUTO ESKOLA**

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL



# Herriz herri

## Zizurkil

# EAREN asmoak eta hautagaiak

## Joxe Larrañaga da alkategaia

Lana, ekonomia, gizarte-hornidurak eta kultura-kirola arloak landu nahi dituzte datorren legegaldian aldi berean "Zizurkilgo biztanleekin harremanak sendotuz".

Sortzen diren lanpostu berriak herritar guztien eskura egon behar dutela diote, guztiek aukera bera izan dezaten. Bestalde, ingurunea errespetatuz, ekintza pribatuak bultzatu nahi dituzte; merkataritza, industria eta antzeko ekimenak. Honekin batera, "egoera ekonomiko kezkarria" dela eta, ekonomia eguneratzeko eta argitzeko asmoa dute.

Gizarte-horniduran berriz, zizurkildarren bizi kalitatea zaindu nahi omen dute eta drogomenpekotasunaren arazo konpontzeaz gain, jubilatuei laguntzak ematea dute helburu. Azkenik, kultura eta kirol munduan lan egiten ari diren taldeak animatu eta bultzatzeko asmoa dute.

Joxe Larrañaga da zerrendaburua eta ondorengoak gainerako kideak: Vicente Mangado, María Dolores Etxeberria, Andoni Ariznabarreta, Jose Antonio de la Iglesia, Idu-



rre Arregi, Antton Imaze, Florentina Iraola, Moises Ituarte, Jose Julian Garmendia eta Arantxa Sarasola. Ordezkoak al-diz, Pedro Etxenagusia, Maria Pilar Urretabizkaia eta Joxe Maria Arregi dira.

# EAJ-PNVren hautagai zerrenda

**Juanjo Aranburu da alkategaia eta beraiekin batera: Maria Angeles Lazkano, Juan Ramon Gabarain, Idoia Lazkano, Maria Cruz Arregi, Jokine Almorza, Jesus Maria Jauregiberri, Pedro Maria Reguero, Maria Resurreccion Iruretagoiena, Paula Ruiz eta Maria Paz Maillo doaz zerrendan.**

"Zizurkilen onerako" lemapean aurkezten dute euren zerrenda EAJ-PNVkoek datozen Udal hauteskundeetarako. Udal barne funtzionamendua hobetu nahi dutela diote, aurrekontuak bere garaian eta modu argian eginez. Hirigintza arloan, babes ofizialeko etxebizitzaren lanen kontrol zorrotza egin nahi dute. Ongizateari dagokionez berriz, hirugarren adinekoei laguntzak eta premiazko egoeratan daudentzako etxebizitzak eraiki nahi dituzte. Horrela, Zizurkil goian, astean behin sendagilea egoteko lokal bat egokitu nahi dute. Kirolen alorrean, aisia eta kirol guneak eraiki nahi dituzte eta kirol taldeen arteko harremanak bultzatu nahi dituzte. Aipatzekoa da falta diren merkatal etxeen ezarpe-

na, dendak eta bankuak esaterako, bultzatu nahi dutela eta ekimen industrialak aurrera eramateko erreztasunak eman nahi dituztela.



**ELEKTRATRESNAK  
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3  
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45  
ANDOAIN

**AURRERA  
TABERNA**

Girorik ederrera gazteriarentzat!!  
ZIZURKIL

Andoain

## VII. Haurren Euskal Jaialdia

Haurrek aurkeztutako euskal folklorearen adierazpen ugariak

Ohiko Dantzari Txiki Eguna baino zerbait gehiago da Haurren Euskal Jaialdia, izan ere eta aurkezpen hitzek dioten bezala dantza ezezik, Euskal Herri osoko folklore adierazpen ezberdinak ere biltzen dira Andoainen ekainaren lehenengo igandean duela zazpi urtez gozotik. Asko dira ekitaldian parte hartzen duten eta antolatzen laguntzen duten herritarrik: familiak, elkarteak, herriko taldeak, eskola umeak eta abar. Aldiko larehun haur inguru biltzen dira herrian. 1988. urtean aurkeztu zuten aurreneko jaialdia, eta aurtengoa zazpigarren jaialdia izango da.



Dantzari gazte ugari biltzen da egun bonetan

**M**unilla atsedean taldean eta Gazteleku elkartearen lanean ari ziren hainbat herritarrek eman zioten jaialdiari 1988. urtean hasiera San Juan jaierarako umeen eguna prestatzen ari zirela. "Egun horrek aspaldi euskal kutsurik ez zeukala konturatu ginen", kontatu digu Karmen Rodriguez antolatzaileetako batek. "hortaz, Andoaingo taldeak oinarritzat hartuz eta kampokoak gonbidatuz haurren euskal jaialdi bat antolatzea erabaki genuen". Herriko taldeen artean hastapenetik egon zirenen artean egungo Urki dantza taldea eta txistulari gazteak aipatu behar dira, hala nola trikitilariak, Andoaingo bertso eskola eta banda. Hauezag gain, garai bateko haurren Xaramel abesbatzak ere parte hartu zuen. Lehenengo jaialdi hura San Juan jaien egitarauaren barne kokatu bazuten ere, ekitaldiaren arrakasta eta emaitza onak ikusita, aurrerantzean egun seinalatu berezi batean ospatzea erabaki zuten. Gozotik ekainaren lehenengo igandean ospatu izan da eguna. Dena den, izan zen jaialdirik gabeko urtea ere, 93.a

alegia: "Urte iluna izan zen" esan digu Karmenek. Udalak dirulaguntzak zirela eta, urte hartan ez zuen diru kopuru erdia aurreratu nahi izan kanpotik zetozen taldeei autobusak adibidez ordaintzeko. "Egun batetik bestera egin beharreko ordainketak dira horiek, eta Udalak ez zuen horrelakorik ziurtatzen, ondorioz, bertan behera utzi behar izan genuen jaialdia", gaineratu du. 1993a urte iluna izan arren, handik aurrera Udalak jarrera aldatu zuen, eta egun hasieran bezala bere dirulaguntzaz antolatzen dute jaialdia.

Jaialdiak baditu bere berezitasun eta helburu propioak: lehenengo eta behin euskal folklorearen ahalik eta adierazpen ugari eta ezberdinenak biltzea du helburutzat jaialdiak. Urtez urte saiateren dira talde ezberdinak ekartzen, eta ezberdinak izateaz gain, herriak edota ezezagun samarrik izaten ere ahalegintzen dira: batean Berastegiko dultzainari txikiak izan ziren herrian, herritik lehenengo aldiz irten ziren Iturengo ttunturroak beste batean, eta Aitor Mendizuluze andoaindarra edo Maddalena

Lujanbio bezalako bertsolari gazteak jende aurreko lehenengo urratsak ere Andoainen eman zituzten. "Garrantzitsua da haurrek beste folklore mota batzuk ezagutzeari" esan digu Karmenek.

Herritik  
lehenengo aldiz  
irtendakoak eta  
Paristik  
etorritakoak

Jaialdira bestalde maila altuko nahiz maila apaleko talde eta banakakoak ekartzeaz gain, bestalako herritarrek ere ekarri izan dituzte. Iturengo edota Zuberoako neska-mutilak esaterako. "Taldea batzuk lehenengo aldiz irten izan dira euren herrietatik, beste batzuk Paristik etorri berriak izan ditugu", azaldu digu. Gainera herriguneaz gain, taldeak eta beren ekitaldiak herriko auzo guztietan zabaltzeko ahalegin handia eginguten dute antolatzaileek.

# Erreportaia

## Egitaraua

Aurtengo egitaraua aurrekoen antzekoa izango bada ere, urtero egiten duten bezala, ekitaldi edota talde bereziren bat ekartzen saiatuko direla aurreratu digute. Dena dela, eta kontatu digutenez lau abesbatza, lau dantza talde, txistulariak eta trikitilariak izango dira. Euren artean herriko Urki datza taldea, txistulariak, eta antolaketa lanetan parte hartzen ari den Inttui abesbatza. Kanpokoen artean Azpeitia, Orío, Lasarte, Aduna, Berastegi, Beasain, Lizartza, Errenderi, Oion, Otxandio, Senpere eta Iruñea aipatu behar dira. Goizean Goikoplazan elkartu eta agurra egin ondoren auzoetara joko dute. Berriro udaletxe aurrerean elkartu ondoren egokitutako familietara joango dira bazkaltzera. Aurten bestelako asmorik ere badute ordea, eta antolatzaileek eskari berezia egin diete herritarrei familia ezberdinak elkartu eta elkarrekin bazkaltzera joateko. Horretarako behar duten tokia eskainiko zaie familiei, elkarteak edota ikastetxeetako jatetxeak adibidez. Bazkalostean eskainiko dute haurrek euren ekitaldi berezia.

## Larehun haur inguru bildu ohi dira urtero



*Bertsolari gazteak ere gazteago*

Hamasei urte bitarteko larehun haur inguru bildu izan dira orain arte jaialdiko. Karmenek kontatu digunez jaialdiaren eraginez harreman ugari sortzen dira herrian bertan eta baita herritik kanpo ere. Kanpoko taldeak ezagutu eta ondoren herriko neska-mutilek beste herri batzuetan euren dantzak edota kantak erakusteko aukera izaten dute bertakoek gonbidatuta. Herrian antolaketa lanetan jende asko izaten da, eta horrek beti ematen du andoaindarraren artean harremanak estutzeko aukera.

### Urki dantza taldea

Aipaturiko hartu-emanaren ondorioz sortu zen, hain zuzen ere, gazte-

txoen Urki dantza taldea. Hasiara batean ikastetxe ezberdinetako dantza taldeetan banatuta zeuden herriko neska-mutirik. Lehenengo jaialdiaren ondoren antolatzaileei egoki iruditu zitzaizen herriko dantza talde bakarra sortzea eta haurrekin, gurasoekin eta irakasleekin hitz egin ondoren guztiek eman zioten baieztoko biribila ideari eta asmoa gauzatu egin zuten. "Lorpen handia izan zen hura" gogoratzen du Karmenek, "horrelaxe sortu zen eskolarteko dantza taldea".

## Herrietara bertara dantzak ikastera

Gaur egun 140 haur inguru ari dira Urki taldean dantza egiten. Herrikoez gain herritik kanpo ere maiz irtetzen dira: Eltzjegora edo Lesakara adibidez, dantzak ikastera.

Aukera aprobatuz Karmenek eskarrak eman nahi izan die antolaketa lanetan parte hartzen duten andoaindar guztiei eta bereziki haurrak gonbidatzen dituzten familiei: Andoaindarra, Zumeatarra, Ontza, A. Leiza, St. Krutz, Kariika Munilla, Gazteleku, Otita elkartei. Bertso Eskolari eta parte hartzen duten guztiei.



*Berastegiko dultzainari gazteak*

# Haragitarako eta esnetarako ganadua

Xabier Pellejero al baitaria: "Ez ditugu bertako produktuak ezagutzen"

**Zizurkilgo Xabier Pellejero al baitariarekin hitz egin dugu bere lanaz eta gure inguruan nagusi den abelzaintzaz, esnetarako eta haragitarako behi eta txahalen hazkuntzaz, alegia. Baserriko lanaz bizi diren ganaduzaleak gero eta gutxiago dira, eta bizi ahal izateko, gainera, ganadu buru ugari behar dituzte. Espezializazioak eta produkzio handiak, hain zuzen ere, egungo baserritar gazteen bizimoduarekin nahiz merkatuko legeekin dauka harreman zuzena.**



**H**amabost urte daramatza Xabier Pellejerok al baitari lanetan. Zizurkil, Asteasu, Larraul, Alkiza eta Aduna inguruan aritzen da normalean. "Albaitariak" izeneko elkarte gipuzkoarraren partaide da Xabier. Baserriz baserri ganaduaren lan klinikoa egiteaz arduratzen dira. Baserrietan egiten dute lana ganaduaren gaisotasunetaz, elikaduraz, inseminazioetaz eta abar arduratuz.

Baserrietan lan egiten duen al baitariaren lanak bi esparru betetzen ditu: birsorkuntzarena nagusiki, eta gaisotasunena. Albaitariaren eginkizuna da abereari inseminazio egokia egitea eta hortik aurrerako pro-

zesuaz arduratzea umea egin, eta sendotu arte. Baserritarrek aukeratzen du haragitarako edota esnetarako ganadua hazi nahi duen, eta horren araberako hazia sartzen zaio. Haurdun dagoela behiaren elikadura eta erabilera ere zaindu egin behar dira. Umea egiteko garaian aparteko zailtasunik ez badago, baserritarra bera konpontzen omen da normalean. Aberea oker etorritzen gero, al baitariaren beharra izaten da. Behin umea egin ondoren eta edoskitzaroak irauten duen hamar hilabete bitartean ere albaitariak zaindu behar du behiaren esne produkzio egokia, eta metabolismo arazoak egon badira, zuzentzen saiatu.

Ganaduen gaisotasunetaz ere arduratzen dira albaitariak. Ohizkoek gain gutxi batzuetan ere izaten dira gaitz bereziak edota izurriteak. Ganadua sendatzeko, bestalde, antibiotikoak dira gehien erabiltzen direnak, nahiz eta baserritarrek metodo tradizionalak ere asko erabiltzen dituzten.

## Haragitarako eta esnetarako

Gaur egun baserritarra esnetarako baino haragitarako ganadua hazteko joera hartzen ari omen da, baserritar gazteak batez ere. Esnetarako behiak egunero jectzi behar dira bi aldiz, eta larrean hazitako behiek berriz, lana eman arren, ez dute horrenbesteko lotura.

Hemengo esne produkzio gehiena IPARLATi saltzen diete baserritarrek; zuzeneko salmentarik apenas egiten da. Supermerkatuak botilan nahiz kaxetan saltzen dituzten esnez beteta dago, "edota esne izena daukaten esnez" gaineratu digu Xabierrek. Esnea komertzializatzetaz bizi nahi duten baserritarren joera espezializazioa da, alegia buru kopuru handia eta tresneria modernoa.

Xabierrek kontatu digunez jaten dugun ganaduaren hirutik bi kanpokoak da. Hemengo ganadua ezin saldu ibili ohi da baserritarra kanpoko preziokin konpetituzerik ez baitauka. Bestalde, bertakoak ere hemengo haragia ez dugula ezagutzen dio Xabierrek, eta jendeak normalean, besterik gabe, merkeenera jotzeko joera dauka.

ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUAK

## ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22  
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA  
**ZABALAGA TAILERRAK**

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia  
Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN

Andoain

## Moto txikien Euskadiko I. txapelketa

Iban Corrochano andoaindarra izan zen herrian irabazle

Jende askok hartu zuen parte hilaren zazpian Andoainen egin zen Euskadiko lehenengo lasterketan. Bertakoez gain Euskal Herritik kanpoko lagun asko bildu ziren puntuaziorik lortzerik ez bazuten ere: errioxarrak, soriarrak, burgotarrak. Aipatzekoa da txikien artean, 15 urte bitartekoen artean, Iban Corrochano andoaindarra izan zela irabazle. Helduetan, 72 kilo bitartekoen artean, Ion Villanueva gipuzkoarra izan zen lehena, eta 72 kilo baino gehiagoko sailean Juan Carlos Ibeas izan zen garaile.

Moto txikiak Gipuzkoan ezagutzera eman dituenarena izan da Euskadiko txapelketa antolatzearen ekimena, eta urte asko Andoainen bizi izan denez, bertan antolatu dute txapelketa. Pedro Hernandez izan da lehenengo bultzatzailetako bat: "Lasterketa antolatzeko ere ez da pista bezirik behar, nahikoa da 400 metro luzera eta metro bat zabalerako pista asfaltatua, eta Andoainen hori bagenuenez, bertan egitea pentsatu dugu", adierazi digu Pedrok.

Andoaingo bigarren probak ikusle asko bildu zituen. Zallan izan zen Euskadiko txapelketaren lehenengo proba, Andoainen bigarrena, eta hirugarrena Mamut hipermerkatuko aparkalekuan izango da ekainaren 11an. Aldi berean egingo da Palma de Mallorcan hasi berria den Espainiako txapelketa.

### Jostailu erakargarria

Motozale arituak izan ohi dira moto txikietan korrika egiten hasten diren gerehinak, beti ere zentzazio berrien bila. Ohiko moto batean izaten den abiadura zentzazioa areagotu nahi izaten dute moto txikien gainean, eta baita lortu ere, izan ere polikiago korrika egin arren, lurrarekin izan ohi den kontaktua eta motoaren txikiak zentzazioa biziagoa

**Moto txikien Euskadiko I. txapelketa egiteko hautatu zuten Andoain hilaren zazpian, hala ere, andoaindarrek lehenago ere ikusita daukate moto txiki lasterketa saio bat baino gehiago Comaq pabiloien inguruan, eta bestalde, Ivan Corrochano andoaindarren izena behin baino gehiagotan agertu izan da komunikabideetan moto txikien lasterketaren baten irabazle. Urte askotan Andoainen bizi izan den Pedro Hernandez izan da kirol berri hau Gipuzkoan ezagutzera eman duena "Real Moto Club" bitartez, eta aipaturiko pabiloietan moto txikiak alokatuz kirola jendartera eraman duena. Italiarra da berez kirolaren jatorria, baina oraindik ere ez dago oso zabalduta; aurten egin dira lehenengo aldiz Euskadiko nahiz Espainiako txapelketak.**



*Belaunekin zorua urratzen dute ia*

bilakatzen du: "30 kilometro orduko korrika eginez gero ere, 200 orduko zoazela iruditzen zaizu", esan digu Pedrok, "gainera beste motoak erabili ezin diren bezala erabil daitezke moto txikiak".

**"Korrikalariak baino motoaren prestaketa teknikoak garrantzi handiagoa hartuko duen beldur naiz"**

Gaztetxoaren artean ere erakarmen berezia daukate jostailudirautek lasterketako moto txikiek. Dena den, lasterketak direla eta, badago Pedro kezkatzen duen zerbait: "Moto txikiak mobilitekin gertatu zen gauza bera gertatuko ote den beldur naiz: motoaren prestaketa teknikoak, korrikalariak baino garrantzi handiagoa hartzea, eta jakina, 700.000 pezetako motoak edukiz, lasterketak irabaztea errazagoa izango da". Hori ekiditeko arautegiak zehatz-mehatza izan behar duela uste du Pedrok. Gainerakoan ongi prestatzeko kilometro

asko korrika egitea bezalakorik ez da goela pentsatzen du.

## 200.000-250.000 pezeta balio du moto txiki batek

Kirola berez arriskutsua ez dela ziurtatu digu Pedrok: "Normalean albo batera erortzen da motorzalea, ongi babestuta egon ohi da, eta ez du kolpe handirik hartzen". Moto txiki batek 200.000-250.000 pezeta inguru balio du. Pedroren ustez ez da oso kirol garestia beste motoen prezioekin alderatuz gero, eta horrek ere aurrerantzean animatuko omen du jendea moto txiketara korrika egitera.

### Italian hasi ziren lehenengoak


Italian hasi ziren lehenengo aldiz kirola praktikatzen. Pedro Hernandezek Santa Polan ikusi zuen aurrenekoak, gustatu, Bartzelonan erosi zituen sei moto txiki eta alokatzeko pista eta guzti prestatu zuen Corrochano andoindarrarekin batera. Ondoren Gipuzkoako "Real Moto Club" eraman zuen ideia. Han ere begi onez ikusi zuten, eta kirola zabaltzeko han eta hemen ekintzak antolatzen hasi ziren. Momentuz antolatzaileen helbururik nagusia kirola ezagutzera ematea da.

## Billabona-Amasa

# Hasi dira errebote eta joko-garbi saioak

## Ekainak 3: Behar-Zana elkartearen jaia

Billabonako errebote eta joko-garbi taldeak Iparraldeko txapelketa ari dira jokatzeko. Horrekin batera, hasita dago dagoeneko Billabonako txapelketa, eta Euskadiko txapelketa jokatuko duten itzaropenez daude. Esku pilota taldeak ere hasiak dira lehian. Beraz, entrenamendu eta saio ugari dauzkate astean zehar hemendik aurrera uda bitartean. Ekainaren 3an bestalde, Behar-Zana elkarteak urteroko jaia ospatuko dute. Aurten Iparraldeko federazioa izendatuko dute ohorezko bazkide.



### Behar-Zanako jaia

Ekainaren 3an ospatuko dute ohiko jaia. Goizean eskuzko finalak izango dira. Arratsaldean joko-garbi eta zesta punta saioak. Txistulariak eta buruhandiak ondoren, eta afari aparta gauean. Igande goizean errebote partiduak.

49 urte beteko ditu aurten Behar-Zana elkarteak. Urtero izendatzen

Sei maila ari dira joko-garbian Iparraldeko txapelketa jokatzeko. Errebotean berriz, hiru talde. Billabonako txapelketa ere hasita dago. Aurten gazteak eta seniorrak nahastuta, lau talde dira guztira.

Orain arteko emaitzak nahiko onak izan direla esan digu Behar-Zanako Jose Antonio Jauregik; "Gaztetxoak batez ere, oso maila polita erakusten ari dira".

dute ohizko bazkideren bat, eta aurten Iparraldeko federazioa izan da hautatua: "Gure artean errebotea zabaltzeko Iparraldekoen beharra daukagu, bestela ezingo genuke inoren kontra jokatu" esan digu Jose Antoniok.

Hurrengo urtean beteko dute mende erdia, eta besteak beste, elkartearen historia bilduko duen liburuskara ari dira osatzen.

**J. Antonio URBIETA**

- Garraioak: 16m. grua
- Urte osoan su egurra
- Bere garaian lastoa eta belarra

Kale Nagusia, 4 - 2. ASTEASU  
Tel. 69 30 92 - 69 26 76

**GOSARIAK - APERITIBOAK  
BILARRA  
GIRO EDERRA!!**

KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN

**Hiru Anaiak**

**GOZOTEGIA**

**PASTELERIA**

Zumea, 18 ANDOAIN

**VAC VAC** **HOL - ATZ** **HICKSON**

VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA**


PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN  
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.  
☎ 69 30 63 - 69 07 34  
BILLABONA

## NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?



Irabazleak **Andoingo Ormendi kirolak** eskaini digun **motxila eder bat** jasotzeko aukera izango du. Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, bidal itzazue zuen erantzunak Andoingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziz. Zorte on!



**Ormendi  
Kirolak**

AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

**ARANBURU**  
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza  
PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea  
☎ 59 08 14  
ANDOAIN

**winterthur**

**LANTZARU**

LANBIDE EZBERDINEN  
ARTEKO KOORDINAKETAK

**GASA ETA BEROGINTZA**

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44  
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELOTSARITZA



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49



**Zabala**  
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN  
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162 ANDOAIN



## Javier Etxeberria, telepolis filosofoa

### “Telebistak eta alderdi politikoak botere egiturak dira”

- Zer da telepolita bat?

- Ikusentzute sare ezberdinak egiten ari diren distantziako biriko biztanlea da, bain zuzen ere.

- Telebistek gure intimitatean gero eta gehiago sartzen badira, zer gertatuko da pribatutasunarekin XXI. mendean?

- Pribatutasun kontzeptu berri bat sortuko da. Lehen epai-learen baimena behar zen etxe batean sartzeko. Etorkizunean ikusentzute kode pribatuak sortuko dira.

- Telebistak orokorrean kaxkarrak, lerdoak eta moralik gabeak direla diote askok.

- Nork bere kanala hautatu abala, hori gutxitu egingo da, hala ere Gemioarena edo Lobatonena bezalako telemorboek iraun egingo dute. Kate pribatuen sorrerak, zalantzarik gabe, zapuztu egin gaitu asko.

- Telebisten eta alderdi politikoaren organigramen artean ikusten al duzu antzekotasunik?

- Telebistak eta alderdi politikoak botere egiturak dira. Kanpo eta barne borroka bera daukate botorea lortzeko.

- Alderdiak ez al dira mitinen estetikaren ordeztuak telepredikatzailena ezartzen ari?

- Danborenea izan zen lehenengoa. Saio bakoitzean gizarte osoaren bekatuak barkatzea lortuko zuela ematen zuen.

- Ideologiaren gainbehera gertatzen ari delako ari al dira alderdi politikoak hautagai ezagun eta herritarrak bilatzen ari?

- Telebistak jendearengan eragin zuzena duten pertsonaiak sortzen ditu: abeslariak, intelektualak, toreroak edo kirolariak. Gaur egun, Urrusolo adibidez, edozein alderdik nahiko luke beretzat.

- Ideologia alde batera utziz, zein agintari politikok uste duzu daukala etorkizunik handiena telebistan?

- Idigoras bezalako pertsonaia batek oso ongi betetzen du telepredikatzailen jermenaren estetika sumindua.

- Amatiño bezalako politikari bat Udal hauteskundeetan egoteak hautatua izateko aukera gehiago ematen al dizkio?

- Zalantzarik gabe. Komunikabideekin barremana izateak hauteskudeen emaitzak erabakitzen diren medioen bariak mugitzeko aukera izatea esan nahi du.


- Karlos Garaikoetxearen jaitsierak ba al dauka bere korbata sortarekin zerikusirik?

- (Barreak) Zabartzarok kalte egiten dio. Transizioarekin identifikatzen du jendeak. Iñaxio Oliveri berriz, egungo EAren irudia ezartzen ari da.

Alvaro Bermejo. DV, “Meridiano cero”. Maiatzak 15

**ZURE  
BOTOA**

**BILLABONA  
AMASA**



**TRASPARENTZIA eta Ongizatea  
ZALANTZARIK GABE Joxi ALKATE**

# Agenda

## IKUSENTZUNEZKOAK

### ANDOAIN

**Maiatzak 29:** Javier Fernandezek "Picos de Europa" 19.30etan Kultur Etxean.

**Maiatzak 30:** Javier Fernandezek "Afrikako hegoaldea I: Namibia eta Botswana" 19.30etan Kultur Etxean.

**Maiatzak 31:** Javier Fernandezek "Afrikako hegoaldea II: Sudafrika eta Zimbabwe" 19.30etan Kultur Etxean.

**Ekainak 13:** Txaro Polok eta Jose Manuel Barruedok "Una experiencia en la ruta Jacobea" aurkeztuko dute Kultur Etxean.

**Ekainak 14:** Eusebio Martinen "Ibilaldia Frantziako Kostalde Atlantikotik zehar" Kultur Etxean.

**Ekainak 15:** Eusebio Martinen "Parque nacional de Doñana y su entorno" Kultur Etxean.

### BILLABONA

**Ekainak 13:** Josu Eizagirrek "Irati izanaren mugarr-Selva milenaria en el corazón de Euskal Herria" aurkeztuko du Gurea zinearetoan 20.00etan.

## IKASTARROAK

Gimnasia ikastaroa zaharrentzat. Izenematea: 69 39 30 Ainhoa.

## IBILALDIAK

**Maiatzak 30:** Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo zaharrentzako ibilaldia. 55tik gorakoentzat. Izenematea: 69 39 30 Ainhoa.

## ERAKUSKETAK

### BILLABONA

**Maiatzak 20-Ekainak 3:** Euskal Herriko fosilen erakusketa Gurea erakusgelan.

### ZIZURKIL

**Ekaina:** Herriko argazki eta dokumentu zaharren erakusketa.

**Ekaina:** Kultur Etxeko lanen erakusketa.

## ANTZERKIA

### BILLABONA

**Ekainak 10:** Dos teatro izeneko taldearen "Robinson Crusoe" haurrentzako saioa 12.30etan Gurea zinearetoan.

## HITZALDIAK

### ZIZURKIL

**Ekainak 1-16:** Arantzadi Zientzia Elkarteko kideek Euskal Herriko historiari buruz eskainitako hitzaldu di sorta.

## ZINEMA

### GUREA ZINEMA BILLABONA

"Estallido"  
"Dos tontos muy tontos"  
"Historias del Cronen"

## BESTE

### ASTEASU

**Kultur astea:**

**Maiatzak 29-31-Ekainak 2:** Arantzadi Zientzia Elkarteko kidea den Jon Tellabidek Asteasuko ondareari buruz eskainitako hitzaldiak: Herri bideak, Etxe eraikuntzak, Asteasuko etnografia.

**Ekainak 3:** Haurrentzako ziklo-krossa eta bertso afaria.

**Ekainak 11:** Eskola txikien jaia Errezilen.

### ANDOAINGO

### AEKren DEIA:

**Ekainaren 10:** Manifestazio nazionala Bilbon Eusko Jaurlaritzarekin hasiak ziren elkarriketaren etena salatu eta euskaltegi libreen egoeraren normalkuntzaren alde. Autobusean joan nahi izanez gero Andoainen izenematea Xaxi eta Lanbroa tabernetan izango da edota 59 17 04 telefonora deituz. Billabonan Ilargi eta Iratzar tabernetan. AEKk dei egiten die euskaltzale guztiei helduen euskalduntze eta alfabetatzea bermatuko duen akordioaren alde bertara joan daitezten.

## LEHIAKETA

### BILLABONA

**Santio jaietako egitarau azalerako lehiaketa** Billabonako marrazki eta argazkizaleentzat. Gutxieneko formatoa: 18 x 24 zm. Epea: Ekainaren 30 arte Kultur Etxean. Sariak: 1.- 22.000 pezeta. 2.- 15.000 pezeta.



GIPUZKOAK  
BEHAR DUENA

udal

abertzale

eta

ezkertzaleak

bozkatu



HERRI BATASUNA





Andoaingo Udala

# GALARDI

## UDAL HAURTZAINDEGIA

### ESKOLAURREKO HEZKUNTZA

- **Euskaraz**
- **3.maila:** 3 gela
  - 1. maila: 0 - 1 urte bitartekoa  
15 haur; 2 hezle + 1 eguerdian
  - 2. maila: 1 - 2 urte bitartekoa  
18 haur; 2 hezle + 1 eguerdian
  - 3. maila: 2 - 3 urte bitartekoa  
20 haur - 2 hezle
- **Jangela:** Adinari egokitutako elikadura programa
- **Ordutegia:** Goizeko 7,30etatik Arratsaldeko 17,00etara
- **Kuotak:** Gurasoen diru sarrera gordinen arabera



### 1995-96 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIOA

- **Egunak:** Ekainak 5etik - 15era.
- **Orduak:** Goizeko 10etatik - eguerdiko 13etara
- **Non:** Urigain Kultura Etxeko idazkaritzan.
- **Informazioa:** Urigain Kultura etxean

☎ **59 38 99**

